

# Erreteria

HERRI BIZIA 

//atlantikaldia//  
**ERRENTERIA,  
ITSASORA  
IREKITAKO  
HERRIA  
UN PUEBLO  
ABIERTO  
AL MAR**



Hibaika

3. ORR. >>

Atlan-  
tikaldia

8. ORR. >>

Herri  
Bizia

10. ORR. >>

Asocia-  
ciones de  
vecinos

13. ORR. >>

Agenda

15. ORR. >>

## *Udala eskura*

Esku artean duzuna Udaleko aldizkari berritua da. Lehenengo alea da hau, baina urtean lau aterako ditugu etxe guzietan banatzeko. Bertan izango duzue Udalarekin lotutako azken albisteen berri, baina ez hori bakarrik. Herri hau berezi egiten duzuen herritar eta mugimendu guztiengi isipilu izatea ere nahi genuke.

Informazio praktikoa bilduko dugu bertan (lehenengo ale honetan, autobusen ordutegiak, adibidez), baina Erreenterian gertatu den eta gertatuko diren gauzek ere tokia izango dute, HerriBizia eta agenda atalen bitartez. Baita lan eta lorpen txalogariak egin dituzten elkarrekin eta herritarrek ere.

Zergatik hartu dugun erabaki hau? Administrazioaren jarduna herritarrei hurbiltzeko konpromisoa dugulako.

Horregatik berreskuratu dugu aldizkaria, eta horregatik ari gara apurka udala modernizatzen. Dagoeneko martxan dugu gardentasun ataria, eta pausoak ematen ari gara administrazioarekin egin beharreko kudeaketa lan guztiak bateratuko dituen Herriaren Arreta Zerbitzua sistema martxan jartzeko.

Helburu bakarra duten neurriak denak: herriaren eta Udalaren arteko harremana azkartu, erraztu eta atseginago egitea. Herriaren eta Udalaren arteko erlazioa humanizatzea, alegia.

# //editorial//

## *El Ayuntamiento, más cercano y accesible*

Esta nueva revista municipal es un paso más para trasladar a toda la ciudadanía lo que hacemos en el Ayuntamiento. Lo entendemos como un paso adelante más dentro del plan estratégico 2025, definido junto a cerca de 300 personas y asociaciones. Una de las líneas a trabajar que define ese plan es crear una ciudad interconectada de manera integral, y ya son muchas las decisiones que hemos tomado en esa dirección: el portal de transparencia que ya está en marcha [www.gardentasuna.errenerria.eus](http://www.gardentasuna.errenerria.eus), la renovación de la web municipal, y el Servicio Atención Ciudadana, que facilitará y mucho las gestiones burocráticas que tú como ciudadano/a tengas que tramitar en el Ayuntamiento.

En definitiva estamos ante una apuesta en todos los ámbitos por acercar el Ayuntamiento a la ciudadanía. Ese es y ha sido uno de nuestros principales objetivos. Por eso empezamos a hacer las asambleas de barrio, con las que recorremos todos los barrios cada dos años; por eso hemos apostado por tener una interlocución directa con las AA.VV; por eso estamos dando pasos a nivel organizativo para modernizar la administración; y por eso planteamos esta revista. No sólo como medio para trasladar a todo el pueblo lo que se hace desde el Ayuntamiento y desde los diferentes colectivos, sino también para recibir propuestas y sugerencias. Esperamos que sea de tu agrado y nos ayudes con tus aportaciones a mejorar la calidad de esta publicación.



3

# «Ver la Alameda a rebosar en la regata de Errenteria fue muy emocionante»

Hibaikako emakumeen traineruko kide dira Amaia Etxabeguren Aranzabal (1996) eta Naroa Galdos Santxo (1996). Arraunlaria lehena, patroia bigarrena. Ugarrizte auzoko bizilagunak dira biak, eta zortzi urte daramatzate jada arraunean Oiartzun ibaien gora eta behera. Aurten, beste behin, oso gertu izan dute Kontxako Bandera Errenteriara ekartzeko aukera. Hurrengo urtean, gogo biziz, berriro saiatuko dira.

## Noiz eta zerk bultzatuta hasi zinenten arraunean?

**AMAIA:** Hamabi urterekin hasi ginen, eta erdi kasualitatez, egia esan. Eskola kirola bukatzean, hortik kanpo zeuden aukerak begiratzen hasi nintzen, eta lagun batek aipatu zidan Hibaikan arraunean hasteko aukera bazegoela. Zer zen oso ondo jakin gabe etorri nintzen probatzera, baina gustatu zitzaidan, eta hemen jarraitzen dut oraindik.

**NAROA:** Ni hilabete batzuk beranduago etorri nintzen, lagunak hemen hasi zirela ikusita. Denera sei hasi ginela uste dut. Besteek utzi zuten eta gu biok bakarrik jarraitzen dugu ordutik. Guztira zortzigarren urtea dugu hau.

## Beraz, gertutik bizi izan duzue emakumeen traineruaren sorrera, eta egin duen ibilbidea...

**A:** Bai, gu bigarren mailako kadteteak ginela atera zen lehenengoz Hibaikako emakumeen trainerua. Bosgarren denboraldia izan da aurtengoa, eta azken lauetan taldean izan gara gu.

## Aldaketa asko egin dira ordutik hona?

**N:** Baldintzek onera egin dute nabarmen. Urtero gauza berriak ditugu, bigarren eskukoak izan arren, arraunak hobetu dira, trainerua ere bai...

**A:** Kluba ere handitu eta egonkor tu egin da. Gainera, asko nabaritzen da herrian gero eta jende gehiagok animatzen gaituela, eta Hibaika ere gero eta ezagunagoa da.

## Nabaritzen duzue beraz, herritaren babes eta animoa?

**N:** Bai, asko. Jendea ikusten

**“El invierno siempre es duro: El frío, la lluvia... pero si tienes claro cual es tu objetivo, sabes que tienes que trabajar duro para conseguirlo.”**

dugu gure kamisetekin, animatzeria datorren jende kopurua ere hazi da, eta geroz eta bandera gehiago dau- de balkoietan ere.

**A:** Gu hona iritsi ginenetik asko aldatu da hori. Sekulako subidoia izan da. Emakumeen trainera telebistan agertu garenez ikusgarritasun handia izan dugu, eta horrek asko laguntzen du, baina talde guztiaren lanari esker egin dugu bide hau.

**Kontxan ohorezko txanda irabazi arren, oso gutxigatik bigarren egin da amaitu duzue denboraldia. Zein zaporerekin geratu zarete?**

**N:** Zapore gazigozoarekin. Beti saiatzen gara gure onena ematen, eta zentzu hortan ez dugu ezer gure buruari aurpegiratzeko. Baino, hala ere, amorrua ematen digu hain ger- tu egon eta ez irabazi izanak. Euskotren Ligan oso gertu izan dugu ga- raipena, Kontxako Bandera ere bai...

**A:** Dena dela, banderengatik le-

hiatzen egote hutsa poztekoa da. Hori da mundu guztiak nahi duena. Gu hor gaude, lehiatzen, eta horrela ari zarenean gauzak batzuetan hobeto ateratzen dira eta besteetan okerrago, baina gutxienez beti gau- de irabazteko borrokan.

**N:** Kanpotik ikusita ematen du beti garela bigarrenak, baina den- borei begiratuz gero, oso segundu gutxiko aldea egoten da bigarren garen aldiro. Hortxe gaude. Aurten gure txanda irabazi dugu baina hala ere ez da posible izan, baina ea hu- rrrengo urtean. Hori bai, taldean, jen- dearekin eta abar, oso pozik gaude, eta hori da garrantzitsuena.

**Una vez más, se os ha escapado por muy poco. ¿Qué significaría para vosotras ganar la Bandera de la Concha?**

**A:** Sería increíble. Justificaría no solo todo el trabajo de la tem- porada, también el que hemos hecho estos últimos ocho años. Hemos quedado segundas, he- mos quedado terceras... Espe- remos que el año que viene nos toque ganar.

**Este año, por primera vez, La Liga de Gipuzkoa ha pasado también por Erreenteria. Coinci- diendo además con las fiestas del pueblo...**

**A:** Coincidio, si. Muchísima gente vino a vernos y animarnos. Los últimos 200 metros fueron impresionantes.

**N:** Yo me puse nerviosa al ver que había tanta gente. Fue muy emocionante, sin duda uno de los mejores momentos de la temporada.



*“Gracias a todo el trabajo realizado, estamos en nuestro mejor momento, pero seguimos teniendo mucho margen de mejora”*

**Hibaika Arraun Elkartea**ak 30 urte egingo ditu datorren urtean, baina ez da beti egungo egoera osasuntsuan egon. Pixkanaka pixkanaka eta jende askoren lanarekin lortu dute gaur egun dagoen tokira heltzea: Kategoria guztiak kontuan hartuta, guztira 100 baino gehiago dira Errenerterian arraun egiten dutenak. Gorakada horren erantzule dira beste askorekin batera Maika

**Tamerón Rodríguez** (1967, Galtzarraborda) zuzendaritzako kidea eta **Alex Orena Diaz** (1977), zuzendaritzako kide izateaz gain, arraunlarria eta entrenatzailea ere badena.

**Maika**, zuk oso hasieratik ezagutu duzu Hibaika. Nolakoak izan ziren lehen urte haiiek?

**MAIKA**: Kluba 1987an sortu zen. Urte hartan mutilen senior taldea

bakarrik zegoen, eta halaxe aritu ziren zenbait urtez. Ni 1995an sartu nintzenerako mutil gutxi zeuden, nahikoa ez trainera ateratzeko, eta orduan hasi ginen nesken taldeak osatzen. Hala ere, oso jende gutxirekin eta material benetan kaskarrarekin aritu ginen 2007ra arte. Jende berria etorri zen, eta horrek aldatu zuen dena.

**Orduan etorri zinen zu, Alex, beste lagun batzuekin batera.**

**ALEX**: Bai. Gu Fortunan aritzen ginen arraunean, eta ezagutzen genituen Hibaikan ari ziren beste batzuk. 2006 urtean desegin zen Fortuna, eta Hibaikara etorri giñitezkeen galdetu genuen. 6-7 lagun etorri ginen azkenean. Lehen urtean batelean eta trainerillan aritu ginen soilik, trainerua osatzeko nahikoa jende ez genuelako. 2007an ordea, jende gehiago etorri zen, San Juanek traineru bat utzi zigun, Zarautzek arraunak...

eta trainerua ateratzea lortu genuen.

Aldi berean, zuzendaritza berri bat osatu genuen eta lanean hasi ginen baliabide gehiago lortzeko, jende gaztea erakartzeko...

**M:** Eskoletara joaten ere aritu gara urte luzez, hitzaldiak eman eta jendea erakartzeko. Horrela pixkanaka mutil eta neska gazteak etorzen hasi ziren, eta bereziki neskak kategoria txikietan nabarmentzen. Azkenean, 2012an lehen aldiz nesken trainerua ere atera ahal izan genuen.

**Jende askoren lanarekin, baina inoizko momentu onenean zaudete orain, ezta?**

**M:** Gure historia lana eta lana izan da, eta orain gaude punturik altuenean. Infantiletan hasi eta senioretara arte kategoria guztietan ditugu arraunlariak, denera ehun baino gehiago, eta jendea gogo askorekin dago. Hala ere, oraindik ere oso baliabide mugatuak ditugu, eta espero dugu oraindik ere hobera egingo duela gure egoerak.

**Harrigarria da, hala ere, zuen lehiakideek baino azpiegitura eta baliabide gutxiagorekin, punta puntako emakume taldea duzuela.**

**M:** Egindako lanaren fruitua da. Ez dugu guk neskena edo mutilena bereziki bultzatu. Eragina izan du agian zuzendaritzan betidanik neskak zein mutilak egoteak. Dena deontzat da eta ditugun baliabideak beharren arabera banatzen ditugu, bereizketarik gabe.

**A:** Bestetik, suertatu da oso talde ona momentu egokian, eta horrek eraman gaitu onenekin lehiatzera. Horrekin batera, beheko kategorietan egiten ari den lana oso ona da. Beraz, nik uste dut orain arteko maila onari jarraipena emateko moduan izango garela, nahiz eta beste taldeek, Oriok eta San Juanek adibidez, gu baino askoz ere azpiegitura hobea eta baliabide gehiago dituzten.

**Zaitasunak zaitasun, Erreenterian erreferentiazko ari zarete bihurtzen...**

**A:** Hamar urte daramatzagu lanean 2007tik eta hasieran Hibaikako kamiseta guk bakarrik genuen. Orain asko ikusten dira. Herri honetan San Juan eta San Pedroko jende asko dago, eta horri buelta ematea ez da erraza, baina ari gara.

**M:** Niri min ematen dit nire lagunak beste traineru batzuetako kamisetekin ikusteak. Baina aldi berean badakit ohitura kontua dela, eta seguru nago orain arte bezala gu animatzeko motiboak ematen jarraitzen badugu, joera hori aldatuko dela pixkanaka. Adibidez, bigarren gelditu arren Kontxaren ondoren herrian izan genuen harrera sekulakoa izan zen. Horrelako gauzek erakusten dute herritarren babesia badugula, gero eta gehiago.



# KIROLA

Errenerterian

**12.502**

PERSONAS ABONADAS  
A LAS INSTALACIONES  
DEPORTIVAS  
MUNICIPALES



**26**

CLUBES FEDERADOS EN 20  
DEPORTES DIFERENTES

**119**

EQUIPOS FEDERADOS

**37**

FEMENINOS

**20**

MIXTOS

*EL AYUNTAMIENTO destina >>*

**194.939€** AL DEPORTE FEDERADO

**74.300€** AL DEPORTE ESCOLAR

**4**

EL DEPARTAMENTO DE  
IGUALDAD PATROCINA 4  
EQUIPOS FEMENINOS

**277.106**

PERSONAS HAN VISITADO  
EN UN AÑO LA WEB DE  
DEPORTES DE ERRENERTERIA



**12.369kms**  
DE BIDEGORRI

**13.356kms**  
MÁS PREVISTOS



//atlantikaldia//





//atlantikaldia//

# 28.500

**PARTE HARTZAILE  
PARTICIPANTES**



**20** musika emanaldi  
**23** tailer  
**5** proiekzio  
**9** erakusketa

**8** hitzaldi  
**7** bisita gidatu  
**5** dantza emanaldi  
**100** EKINTZA



informate del día a día en  
herriko egunero kotasunaren  
berri izateko  
**>>**



# HERRI BIZIA

[herribizia.errenerteria.eus](http://herribizia.errenerteria.eus)



*Komun publiko  
berriak  
Alhondigan*  
**<<**



*Han  
comenzado las  
obras de los  
ascensores que  
unirá Alaberga  
alto y bajo*  
**>>**






## Aparkaleku berriaren obrak Igantzin



Iztietar.  
Konponketak



Aparcamientos en  
Galtzaraborda



# Ozzinema



Con la puesta en marcha de la iniciativa Cineclub OZ Zimena se quiso recuperar la figura de los cineclubs, que ha sido muy importante en Errenerteria. Las proyecciones contaron con una gran afluencia de público.



12

Ane Santestebanek Rio de Janeiroko Olinpiar Jokoe-tan parte hartu zuen. 47. postuan iritsi zen helmugara Van der Breggen irabazlearengandik 11:32ra. 25 urteko errenerteriarra Ale-Cipollini talde italiarrean lehiatzen da urtean zehar. Ramon Gonzalez Arrieta hautatzaileak aukeratu zuen probarako.

## *Ane Santesteban kirolari olinpikoari omenaldia*



# ASOCIACIONES DE BARRIO, MUCHO MÁS QUE INTERMEDIARIAS

Por mucho empeño y esfuerzo que un Ayuntamiento ponga por su parte, es realmente difícil conocer de primera mano las inquietudes de más de 39.000 habitantes. Sin embargo, es mucho más fácil cuando grupos de vecinas y vecinos organizados recogen esas preocupaciones barrio a barrio, y proponen soluciones.

En Errenerteria, un total de quince asociaciones de vecinos realizan esa labor desde hace años. Gracias a ellas y al trabajo voluntario de las personas que forman las directivas, cientos de solicitudes llegan al Ayuntamiento. Sin ellas, no habría fiestas de los barrios, ni decenas de actividades culturales y de ocio que enriquecen nuestro día a día. Nos hemos acercado a Pontika e Igantzi para conocer de primera mano cómo funcionan estas asociaciones y que retos tienen entre manos.

## Pontika: “Oso aktiboa den auzoa”

Iñaki Zapirain es secretario de la Asociación de Vecinos de Pontika, y ya lleva más de quince años en la directiva. Recuerda que la asociación fue creada en la década de los 70, cuando debido al desarrollo de la industria el barrio sufrió muchos cambios en muy poco tiempo. “Desde entonces, siempre hemos estado en marcha. Con más o menos fuerza, pero sin ningún pa-





rón. Tenemos suerte en ese sentido, el nuestro es un barrio muy activo".

Se organizan agrupados en cuatro comisiones: jubilados, mujeres, jóvenes y fiestas. Según Iñaki Zabaleta, vocal de la asociación, los representantes de todas las comisiones se reúnen como mínimo una vez al mes, para poner en común todo lo que están haciendo. Anualmente se hace una asamblea abierta para todo el barrio.

### Igantzi: "Momentu onean gaude"

En Igantzi, donde la Asociación de Vecinos se formó en 1982, el funcionamiento es algo diferente. Carmelo Estévez fue uno de los fundadores, y desde entonces no ha dejado de trabajar para mejorar su barrio. "Hoy en día no tenemos comisiones, y las decisiones las tomamos entre las ocho personas que formamos la directiva. Nos reunimos una vez a la semana para tratar los temas que tengamos pendientes y una vez hemos terminado, aprovechamos para poder hablar con los vecinos y que nos trasladen

sus inquietudes en el pintxo-pote".

Organizan a su vez una asamblea de barrio anual, donde están invitados los 180 socios y socias con los que cuenta la asociación, pero también cualquier otra persona que habite en el barrio y quiera compartir sus preocupaciones. Eva Rubio, una de las vecinas que están en la directiva, recuerda que hubo unos años en los que la asociación estaba casi inactiva, pero afirma que ahora están en un buen momento.

### Udalerako zubia

Existe al menos una característica que comparten las asociaciones de Igantzi y Pontika: los vecinos y vecinas conocen muy bien a las personas que forman la directiva, y las abordan en la calle con cientos de quejas o sugerencias. Ellas recogen esas peticiones y las trasladan al Ayuntamiento en la forma que corresponda. Para Iñaki, de Pontika, son un paso intermedio entre la ciudadanía y el Ayuntamiento. Joseba Unsuain, también vocal de la asociación de Pontika,

puntualiza que cada uno de ellos está especializado en un área, y eso facilita que puedan trasladar "con concreción y claridad" las inquietudes de sus vecinos y vecinas.

Eva Rubio de Igantzi, por su parte, indica que la mayoría de las demandas que reciben tienen que ver con cuestiones urbanísticas o de mantenimiento: Una farola que se ha roto, arbustos que impiden el paso... "Es cierto que nos llegan cosas que se pueden solucionar de otra manera, o que son problemas personales. Salvo en esas excepciones, todo lo que nos llega lo enviamos al Ayuntamiento".

### Auzoen arteko elkartasuna

La colaboración entre barrios es también uno de los puntos clave para que todas las asociaciones funcionen correctamente. Carmelo, de Igantzi, nos recuerda que son habituales las reuniones más o menos informales entre los miembros de las 15 asociaciones de vecinos que hay actualmente en Errenteria. "Hablamos de las dificultades que tiene cada asociación o de los retos que tenemos entre manos, y compartimos información que pueda ser útil para todos". Pero la colaboración entre barrios va más allá. Hace dos años, y promovido por el Ayuntamiento, se elaboró un inventario común con los bienes y recursos de cada asociación de vecinos, para que puedan compartirlos. Eva insiste en que es una buena idea: "No tiene sentido que en cada barrio tengamos que comprar un montón de cosas que utilizaremos una o dos veces al año".

# //agenda//

## Ez dok hamairu taldeari omenaldia

12:00 | *Fatima eliza*  
Antolatzalea: Erreenteriako Udala,  
Kultura Kreaktiboa

## azaroak 28-abenduak 3 Izenetik izatera. Erakusketa.

Merkatuzar  
Antolatzalea: 7BAT17

## azaroak 28 - abenduak 3 Euskararen astea

Antolatzalea: Lau Haizetara

## abenduak 1-15 Giza eskubideak Palestina eta Golanen. Erakusketa.

Xenpelar Etxea  
Antolatzalea: Erreenteriako Udala

## abenduak 2 Screen Man

17:00 eta 18:30 | *Niessen Kulturgunea*  
Zer?: L'home Dibuixat konpainiaren  
antzerki emanaldia, haurrentzat.  
Sarrera: 3 euro  
Antolatzalea: Erreenteriako Udala,  
Kultura Kreaktiboa

## abenduak 3 Colectivo de Teatro Vistazul

18:30 | *Niessen Kulturgunea*  
Antolatzalea: Centro Cultural Andaluz  
Aljarafe

## abenduak 4 Nundik nora

19:00 | *Niessen Kulturgunea*  
Zer?: Maritzuli konpainiaren  
dantza emanaldia.  
Sarrera: 8 euro  
Antolatzalea: Erreenteriako Udala,  
Kultura Kreaktiboa

## abenduak 5 Euskararen Eguneko Jaialdia

9:00 | *Beraungo pilotalekua*  
Antolatzalea: Bizarain ikastola

## abenduak 8 Xenpelar saria. Finala

17:00 | *Niessen Kulturgunea*  
Sarrera: 3 euro  
Antolatzalea: Xenpelar Bertso Eskola

## abenduak 8-10 / 15-17 Pasaiako segada. Erakusketa.

Merkatuzar  
Antolatzalea: Oinatzak produkzioak

## abenduak 10 Kantujira

11:00 | *Herriko kaleetan zehar*  
Antolatzalea: Lau Haizetara

## abenduak 11 Muxikoak

12:00 | *Herriko plaza*  
Antolatzalea: Beti Prest

## abenduak 15 Kirolaren gala

20:00 | *Niessen Kulturgunea*  
Antolatzalea: Udal Kirol Patronatua

## abenduak 16-21 Landarboso 25!

Xenpelar Etxea  
Zer?: Abesbatzaren 25 urteko historia  
biltzen duen erakusketa.  
Antolatzalea: Landarboso abesbatza

## abenduak 17 Bantzaldia

19:30 | *Niessen Kulturgunea*  
Zer?: Aiko eta Erreenteriako Musika  
Bandaren emanaldia  
Antolatzalea: EMKE

## abenduak 18 Ereintzako Txistulari taldearen kontzertua

18:30 | *Madalena basilika*  
Antolatzalea: Maria Magdalenaren  
Lagunak

## abenduak 19tik aurrera Eguberrietako programazio berezia

San Tomas Eguna, Olentzeroak,  
Gabonetako Jaialdiak, kontzertuak,  
kirol txapelketak, lasterketak...

# autobus urbanoak

**U11, U22 eta U44**

## **U11 GALTZABORDA - BERAUN - KAPUTXINOAK**

Morrongilletatik irteerak *Salidas de Morrongilletea*

Astelehenetik ostiralera <i>de lunes a viernes</i>	Larunbatetan <i>Sábados</i>	Igande eta jaiegunetan <i>Domingos y festivos</i>
08:00, 08:30, 09:00, 09:30, 10:00, 10:30, 11:00, 11:30, 12:00, 12:30, 13:00, 13:30, 14:00, 14:30, 15:00, 15:30, 16:00, 16:30, 17:00, 17:30, 18:00, 18:30, 19:00, 19:30, 20:00, 20:30, 21:00, 21:15, 21:30, 21:50, 22:10.	08:30, 09:10, 09:30, 10:10, 10:30, 11:10, 11:30, 12:10, 12:30, 13:10, 13:30, 14:10, 14:30, 16:10, 16:30, 16:50, 17:10, 17:30, 17:50, 18:10, 18:30, 19:10, 19:30, 19:50, 20:10, 20:30, 20:50, 21:10, 21:30, 21:50, 22:10.	10:50, 11:10, 11:30, 11:50, 12:30, 12:50, 13:10, 13:30, 13:50, 14:10, 17:10, 17:30, 17:50, 18:10, 18:30, 18:50, 19:10, 19:30, 19:50, 20:10, 20:30, 20:50, 21:10, 21:30, 21:50, 22:10.

## **U22 GALTZABORDA - BERAUN - KAPUTXINOAK - NAFARROA ETORB. - FANDERIA - LARTZABAL**

Astelehenetik ostiralera <i>de lunes a viernes</i>	Larunbatetan <i>Sábados</i>	Igande eta jaiegunetan <i>Domingos y festivos</i>
Morrongilletatik irteerak <i>Salidas de Morrongilletea</i> 07:45, 08:15, 08:45, 09:15, 09:45, 10:15, 10:45, 11:15, 11:45, 12:15, 12:45, 13:15, 13:45, 14:15, 14:45, 15:15, 15:45, 16:15, 16:45, 17:15, 17:45, 18:15, 18:45, 19:15, 19:45, 20:15, 20:45.	Morrongilletatik irteerak <i>Salidas de Morrongilletea</i> 08:50, 09:50, 10:50, 11:50, 12:50, 13:50.	Ez dago zerbitzurik.

Lartzabal anbulatoriok irteerak  
*Salidas de Lartzabal ambulatorio*  
08:05, 08:35, 09:05, 09:35, 10:05, 10:35, 11:05, 11:35, 12:05, 12:35, 13:05, 13:35, 14:05, 14:35, 15:05, 15:35, 16:05, 16:35, 17:05, 17:35, 18:05, 18:35, 19:05, 19:35, 20:05, 20:35.

Lartzabal anbulatoriok irteerak  
*Salidas de Lartzabal ambulatorio*  
09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05

## **U44 GALTZABORDA - BERAUN - TXIRRITA MALEO - MASTI LOIDI**

Morrongilletatik irteerak  
*Salidas de Morrongilletea*

Astelehenetik ostiralera lanegunetan abuztuan izan ezik  
*de lunes a viernes laborables excepto agosto*  
07:30



u5, u6, u7 eta u33aren ordutegiak hurrengo alean los horarios del u5, u6, u7 y u33 en el próximo número.

**Zure iritzia  
eman nahi duzu?  
¿Quieres proponer  
contenido para la  
revista?**

Izena **Nombre** \_\_\_\_\_ Teléfonoa **Teléfono** \_\_\_\_\_

Posta elektronikoa **Dirección electrónica** \_\_\_\_\_

Iradokizuna edo eskaera

**Sugerencia o petición** \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

